



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

UDALAREN OSOKO BILKURA 2008ko apirilaren 28ko ohiko bilera

BERTARATU DIRENAK:

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- M^a CARMEN URBIETA GONZALEZ and.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA jn.
EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABAETA jn.
EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.
PSE-EE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.
PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.
PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.
PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.
PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.
PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.
PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES jn.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.
EB-B.- DANIEL HERRERA TORRECILLA jn.
EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.

EUSKARA ITZULTZAILEA

IDOIA NOBLE and.

KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIÁ GUTIERREZ and.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA

JAVIER BOLINAGA LEKUE jn.

Leioako udaletxean, bi mila eta zortziko apirilaren hogeita zortziko arratsaldeko zazpiak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengo osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- 2008-02-28an EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA ONESTEA: Izenburuan aipatutako bilkurako akta onetsi gabe zegoela aipatu da; beraz, Udalaren osoko bilkurak onesteko jarri da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez onetsi du** bi mila eta zortziko otsailaren hogeita zortzian egindako ohiko bileraren akta.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

2.- EKONOMI SUSTAPEN, PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUKO INFORMAZIO BATZORDEAREN OSAERA ALDATZEA: Barne Araubideko Informazio Batzordearen 2008ko apirilaren 1eko 47. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

PSE-EE(PSOE) udal taldearen bozeramaileak honako idazkia aurkeztu du:

“Honen bitartez jakinarazi nahi dizuet, ondore egokiak izan ditzan, idazki hau egin den egunetik aurrera Pilar Grados García andrea (Leioako Udaleko PSE-EEko zinegotzia) izango dela mahaikide titularra PSE-EE ordezkatzeko Leioako Udalaren Ekonomi Sustapen, Prestakuntza eta Enplegu Informazio Batzordean, eta Alfonso López Arevalillo jauna (Leioako Udaleko PSE-EEko zinegotzia) izango dela ordezeko mahaikidea.

Leioan, 2008ko apirilaren 1ean.”

Barne Araubideko Informazio Batzordea jakinaren gainean eta ados geratu da. Halaber, bidezko hartu du udalaren osoko bilkurari dagokion batzarrean jakinaraztea, aldaketa berehala eraginkorra izateari kalterik egin gabe.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du onetsi egingo dela** Ekonomi Sustapen, Prestakuntza eta Enplegu Informazio Batzordearen osaera aldatzea, Barne Araubideko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

3.- UDALAREN 2007ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN AURREKONTU-EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO GERAKINA ONESTEN DITUEN ALKATETZAREN DEKRETUAREN BERRI EMATEA. Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko apirilaren 8ko 190. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2008ko apirilaren 1ean hartu zuen 39. irizpenak honakoa dio:

Aztertu da Alkatetzaren 2008ko martxoaren 27ko 424. Dekretua; honakoa dio, hitzez hitz:

424/08 DEKRETUA:

2007ko ekitaldiko udal aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina aztertu dira; hona hemen laburpena:

AURREKONTU-EMAITZA		
Aintzatetsitako eskubide garbiak	44.682.737,04	
Aintzatetsitako obligazio garbiak	33.338.600,25	
Ordaindu gabeko obligazioen saldoa gutxitzea	0,00	
Kobratu gabeko eskubideen saldoa gutxitzea	123.135,42	
Aurtengo aurrekontuaren aurrekontu-emaizta	11.344.136,79	
Itxitako aurrekontuen aurrekontu-emaizta	- 123.135,42	
AURREKONTU-EMAITZA		11.221.001,37



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Finantzazioko desbideraketa positiboak		1.848.817,64
Finantzazioko desbideraketa negatiboak		0,00
Diruzaintzako gerakinekin finantzatutako gastuak		4.794.714,65
AURREKONTUKO EMAITZA DOITUA		14.166.898,38

DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EMAITZA

Ekitaldi bukaeran kobratu gabeko zordunak		8.152.234,57
a) Aurtengo aurrekontua	7.745.140,82	
b) Itxitako aurrekontua	3.413.684,85	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketak	407.093,75	
d) Zalantzazko kobrantzako zordunak	-3.413.684,85	
e) Aplikatu gabeko diru-sarrerak	0,00	
Ekitaldi bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak		3.877.825,78
a) Aurtengo aurrekontua	2.087.361,11	
b) Itxitako aurrekontua	605.381,43	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketen hartzekodunak	1.185.083,24	
d) Diru-sarrerak itzultzeko hartzekodunak	0,00	
e) Aplikatu gabeko ordainketak	0,00	
Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak		27.527.269,97
a) Ekitaldi bukaeran kutxan dagoena		
b) Diruzaintzako soberakinak		
Diruzaintzako gerakina, guztira		31.801.678,76
a) Bukaeran kobratu gabeko zordunak	8.152.234,57	
b) Bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak	3.877.825,78	
c) Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak	27.527.269,97	
Eragindako diruzaintzako gerakina		4.931.556,60
Gastu nagusien diruzaintzako gerakina		26.870.122,16
Diruzaintzako gerakina, guztira		31.801.678,76

OHARRA: Kontuan hartu behar da diruzaintzako gerakina guztira 31.801.678,76 €-koa bada ere, hurrengo ekitaldian zenbait gastu egiteko konpromisoa hartu dela jada, 22.712.932,16 €-ko gastua egiteko konpromisoa hain zuzen ere; horrenbestez erabil daitezkeen diruzaintzako gerakina 9.088.746,60 €-koa da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 10eko 10/2003 Foru Arauaren 49. artikulua dio likidazioa Tokiko Erakundeko presidentek onetsi behar duela, eta osoko bilkurari jakinarazi.

HONEN BITARTEZ, honakoa erabaki dut:

1. Onetsi egingo dira 2007ko ekitaldiko udal aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina.
2. Onespen hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergai-zerrendan sartuko da.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Alkateak 2007ko ekitaldiko udal aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina onesteko eman duen 424/08 Dekretuaren jakinaren gainean eta horrekin ados geratuko da.
2. Onespen hau osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileran jakinaraziko da.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipaturako proposamenaren alde agertu da.

EZTABAIDA:

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Aipatu du gerakinean erabilgarri dauden bederatzita milioi euroak gehiegizkoak direla Leioan dauden inbertsio beharizanak kontuan hartuta. Bere ustez, aurrekontua behar bezala ez kudeatzearen ondorioa da hori. Era berean adierazi du 2006. urtearekin alderatuz hiru milioi euro gehiago daudela gerakinean, eta horrek joera desegokia islatzen duela, gerakina gero eta txikiagoa izan beharko litzatekeelako, inbertsioak areagotu direla esan nahiko lukeelako horrek.

EAJ-PNVko **Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Adierazi du dagoen gerakina hainbat urtetan egon diren ekarpen ekonomikoen ondorioa dela eta adibide moduan azaldu du Kultur Leioa aurreko urteetako gerakinak erabiltzeari esker lortu ahal izan zela.

Gauzak horrela azaldu du gaur egun dagoen gerakinari esker Pinosoloko kiroldegiaren azpiegituraren eraikuntza finantzatu ahal izango dela, eta horrek ez diola kalterik eragingo gerakinaren zati bat udalaren beste gastu batzuetarako erabiltzeari.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Alkateak 2007ko ekitaldiko udal aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina onesteko eman duen Dekretuaren **jakinaren gainean** geratu da Udalaren osoko bilkura.

4.- EUSKARAREN ERAKUNDEA ERAKUNDE AUTONOMOAREN 2007ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN AURREKONTU-EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO GERAKINA ONESTEN DITUEN ALKATETZAREN DEKRETUAREN BERRI EMATEA: Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko apirilaren 8ko 191. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2008ko apirilaren 1ean hartu zuen 40. irizpenak honakoa dio:

Aztertu da Alkatearen 2008ko martxoaren 27ko 423. Dekretua; honakoa dio, hitzez hitz:

423/08 DEKRETUA:

Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoaren 2007ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina aztertu dira; hona hemen laburpena:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

AURREKONTU-EMAITZA

<i>Aintzatetsitako eskubide garbiak</i>	1.136.618,57	
<i>Aintzatetsitako obligazio garbiak</i>	1.105.547,77	
<i>Ordaindu gabeko obligazioen saldoa gutxitzea</i>	0,00	
<i>Kobratu gabeko eskubideen saldoa gutxitzea</i>	0,00	
<i>Aurtengo aurrekontuaren aurrekontu-emaiza</i>	31.070,80	
<i>Itxitako aurrekontuen aurrekontu-emaiza</i>	0,00	
AURREKONTU-EMAITZA		31.070,80
<i>Finantzazioko desbideraketa positiboak</i>		0,00
<i>Finantzazioko desbideraketa negatiboak</i>		0,00
<i>Diruzaintzako gerakinekin finantzatutako gastuak</i>		16.194,89
AURREKONTUKO EMAITZA DOITUA		47.265,69

DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EMAITZA

Ekitaldi bukaeran kobratu gabeko zordunak		25.388,16
<i>a) Aurtengo aurrekontua</i>	25.388,16	
<i>b) Itxitako aurrekontua</i>	1.638,81	
<i>c) Aurrekontutik kanpoko eragiketak</i>	0,00	
<i>d) Zalantzazko kobrantzako zordunak</i>	1.636,81	
<i>e) Aplikatu gabeko diru-sarrerak</i>	0,00	
Ekitaldi bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak		159.467,42
<i>a) Aurtengo aurrekontua</i>	17.202,11	
<i>b) Itxitako aurrekontua</i>	150,00	
<i>c) Aurrekontutik kanpoko eragiketen hartzekodunak</i>	88.596,47	
<i>d) Diru-sarrerak itzultzeko hartzekodunak</i>	0,00	
<i>e) Aplikatu gabeko ordainketak</i>	-53.518,84	
Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak		181.296,20
<i>a) Ekitaldi bukaeran kutxan dagoena</i>	0,00	
<i>b) Diruzaintzako soberakinak</i>	0,00	
Diruzaintzako gerakina, guztira		47.216,94
<i>a) Bukaeran kobratu gabeko zordunak</i>		25.388,16
<i>b) Bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak</i>		159.467,42
<i>c) Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak</i>		181.296,20
<i>Eragindako diruzaintzako gerakina</i>		0,00
<i>Gastu nagusien diruzaintzako gerakina</i>		47.216,94
Diruzaintzako gerakina, guztira		47.216,94

OHARRA: Kontuan hartu behar da diruzaintzako gerakina guztira 47.216,94 €-koa bada ere, hurrengo ekitaldian zenbait gastu egiteko konpromisoa hartu dela jada, 2.847,02 €-ko gastua egiteko konpromisoa hain zuzen ere; horrenbestez erabil daitekeen diruzaintzako gerakina 44.369,92 €-koa da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 10eko 10/2003 Foru Arauaren 49. artikulua dio likidazioa Tokiko Erakundearen presidentek onetsi behar duela, eta osoko bilkurari jakinarazi.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

HONEN BITARTEZ, honakoa erabaki dut:

1. Onetsi egingo dira Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoaren 2007ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina.
2. Onespen hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergai-zerrendan sartuko da.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Alkateak Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoaren 2007ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina onesteko eman duen 423/08 Dekretuaren jakinaren gainean eta horrekin ados geratuko da.
2. Onespen hau osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileran jakinaraziko da.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Alkateak Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoaren 2007ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina onesteko eman duen Dekretuaren jakinaren gainean geratu da Udalaren osoko bilkura.

5.- SOINU ATADIA FUNDAZIO PUBLIKOAREN 2007ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN AURREKONTU-EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO GERAKINA ONESTEN DITUEN ALKATETZAREN DEKRETUAREN BERRI EMATEA: Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko apirilaren 8ko 192. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2008ko apirilaren 1ean hartu zuen 41. irizpenak honakoa dio:

Aztertu da Alkatearen 2008ko martxoaren 27ko 425. Dekretua; honakoa dio, hitzez hitz:

425/08 DEKRETUA

Soinu-Atadia Fundazio Publikoaren 2007ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina aztertu dira; hona hemen laburpena:

AURREKONTU-EMAITZA		
<i>Aintzatetsitako eskubide garbiak</i>	1.834.191,20	
<i>Aintzatetsitako obligazio garbiak</i>	1.820.090,42	
<i>Ordaindu gabeko obligazioen saldoa gutxitzea</i>	0,00	
<i>Kobratu gabeko eskubideen saldoa gutxitzea</i>	0,00	
<i>Aurtengo aurrekontuaren aurrekontu-emaizta</i>	14.100,78	



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

<i>Itxitako aurrekontuen aurrekontu-emaizta</i>	0,00	
AURREKONTU-EMAITZA	14.100,78	14.100,78
<i>Finantzazioko desbideraketa positiboak</i>	0,00	
<i>Finantzazioko desbideraketa negatiboak</i>	0,00	
<i>Diruzaintzako gerakinekin finantzatutako gastuak</i>	1.860,50	
AURREKONTUKO EMAITZA DOITUA		15.961,28

DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EMAITZA

Ekitaldi bukaeran kobratu gabeko zordunak		16.809,34
<i>a) Aurtengo aurrekontua</i>	15.855,16	
<i>b) Itxitako aurrekontua</i>	8.678,31	
<i>c) Aurrekontutik kanpoko eragiketak</i>	954,18	
<i>d) Zalantzazko kobrantzako zordunak</i>	-8.678,31	
<i>e) Aplikatu gabeko diru-sarrerak</i>	0,00	
Ekitaldi bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak		126.606,03
<i>a) Aurtengo aurrekontua</i>	59.601,47	
<i>b) Itxitako aurrekontua</i>	0,00	
<i>c) Aurrekontutik kanpoko eragiketen hartzekodunak</i>	67.004,56	
<i>d) Diru-sarrerak itzultzeko hartzekodunak</i>	0,00	
<i>e) Aplikatu gabeko ordainketak</i>	0,00	
Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak		124.678,59
<i>a) Ekitaldi bukaeran kutxan dagoena</i>		
<i>b) Diruzaintzako soberakinak</i>		
Diruzaintzako gerakina, guztira		
<i>a) Bukaeran kobratu gabeko zordunak</i>	16.809,34	
<i>b) Bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak</i>	126.606,03	
<i>c) Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak</i>	124.678,59	
<i>Eragindako diruzaintzako gerakina</i>	0,00	
<i>Gastu nagusien diruzaintzako gerakina</i>		14.881,90
Diruzaintzako gerakina, guztira		14.881,90

Soinu-Atadia Fundazio Publikoko presidentek ontzat eman ditu 2007ko ekitaldiko diruzaintzako gerakina eta aurrekontu-emaizta.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeek Aurrekontuei buruzko abenduaren 10eko 10/2003 Foru Arauaren 49. artikulua dio likidazioa Tokiko Erakundeko presidentek onetsi behar duela, eta osoko bilkurari jakinarazi.

HONEN BITARTEZ, honakoa erabaki dut:

1. Onetsi egingo dira Soinu-Atadia Fundazio Publikoaren 2007ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina.
2. Onespen hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergai-zerrendan sartuko da.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

1. Alkateak Soinu-Atadia fundazio publikoaren 2007ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaitza eta diruzaintzako gerakina onesteko eman duen 425/08 Dekretuaren jakinaren gainean eta horrekin ados geratuko da.
2. Onespen hau osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileran jakinaraziko da.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipaturako proposamenaren alde agertu da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Alkateak Soinu-Atadia fundazio publikoaren 2007ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaitza eta diruzaintzako gerakina onesteko eman duen Dekretuaren **jakinaren gainean** geratu da Udalaren osoko bilkura.

6.- TORRESOLO SEKTOREARI DAGOKIONEZ HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA. AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK AZTERTZEA: Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko apirilaren 22ko 79. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udalaren osoko bilkurak 2008ko otsailaren 28an hartutako 9. erabakiaren bidez, hasieran onetsi zen Leioako Plan Orokorraren aldaketa zehatza, Torresoloko eremuari (44. sektorea) buruzkoa. Aldaketaren helburua Pinosolo gunean aurreikusitako kirol erabilerako arloa handitzeko aukera ematea da eta, era berean, Pinosoloko parkea Txabi eta Joseba Etxebarrieta kaleraino luzatzea aurreikusi du, kale horrek bere ibilbidea aldatuko duela, irisgarritasun irizpideetara egokitzeko. 357 etxebizitza (232 BOE eta 125 EL) eraikitzea aurreikusi da.

Horretarako adierazitako epean, hurrengo alegazioak aurkeztu dira:

- **2008ko apirilaren 7an (sarrera-erregistroko zk.: 2.744), AUZOTIK erakundeak** azaldu du hirigintza-eraikigarritasuna handitu dela, 2/2006 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurrek onetsi den eta indarrean dagoen Jarduketa Urbanizatzaileko Programa ez daukaten bitartean, luraren jabetzako hirigintza-edukiak ez duelako barne hartzen horretarako eskubidea. Horregatik, uste du Lege berriaren etxebizitza babesturako gutxieneko estandarrak eta 105. artikuluan adierazitako erreserbak aplikatu behar direla.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta bertan adierazi du alegatzaileak kontzeptu mota ezberdinak nahastu dituela: Lurzoruari buruzko Legearen 22. artikulua Lurzoru Urbanizagarriko eta Finkatu gabeko Hiri Lurzoruko jabetzaren legezko hirigintza-edukia ezartzen du. Horrenbestez, lurzoruaen kategoria horietan jabetza-eskubidearen edukia zein den zehaztu du, horren gainera jabetza hirigintza arloko legeek ezarritako lege estatutuari lotuta baitago. Beste gauza bat da etxebizitza babesturako estandar berriak denboran aplikatzea, epe batzuk amaitzen direnean, plangintzari buruzko dokumentuetan egoitzazko erabilerako



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

eraikigarritasuna eraginkortasunez handitzen denean, hain zuzen ere, bakarrik burutuko direnak. Plangintzaren aldaketa horrek Plan Orokorrean jada aurreikusitako lurzoru urbanizagarria eraikigarritasun-koefiziente berdinei helduta sektorizatu besterik ez du egiten.

Honako erkatzeko koadro hau aurkeztu da:

HAPO-REN ETA ALDAKETA ZEHATZAREN APROBETXAMENDUAK ERKATZEKO KOADROA												
AZALERA OSOA (m ²)		ERAIKIGARRITASUNA (m ² c)			ETXEBIZITZA KOPURUA							
					KOE.F.	HAPO	AZ	KOE.F.	GUZTIRA		BOE	
HAPO	AZ	HAPO	AZ	HAPO					AZ	HAPO	AZ	
120.655	117.988	0,30	36.196,50	34.111,17	30	362	354	235	230	127	124	

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du.

- **2008ko apirilaren 9an (sarrera-erregistroko zk.: 2.811), Julio del Ferrero Rodríguez jaunak, Maria Jesús Yarritu Meabe andrearen izenean,** jabetzei eta azalerei buruzko hainbat xehetasun eman ditu eta horiek justifikatzen dituen dokumentazioa eman du, datu zehatz batzuk aldatzea proposatuta.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta bertan adierazi du mota horretako oharrak kudeaketa fasearen, eta zehatzago, Berrito Zatitzeko Proiektuaren berezkoak direla. Nolanahi ere, dokumentazioa aztertu ondoren, alegazioa aintzat hartzea proposatu da, prozeduraren barnean egokia den unean jabetzak eta azalera egiaztatze egingo den izapidearen eta finkaren jabari-titulartasunaren inguruan hirugarrenak agertzearen kalterik gabe.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du.

- **2008ko apirilaren 11n (sarrera-erregistroko zk.: 2.881), Kati Gutierrez Muñoz andreak, Independentzia kaleko 88.etik 100.era arteko zenbakietako eraikinetako Jabeen Erkidegoko presidentea den aldetik,** alboko lurra eraikigarriak izatearekin ados ez dagoela adierazi du. Halaber, aparkatzeko azalera prestatzeko eskatu du.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta bertan proposatutako antolamendua defendatu du, hiriko continuuma sortzen baitu. Alde horretatik, sektorean behar beste aparkaleku aurreikusi dira, gai horri buruz indarrean dagoen araudia beteta.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du, nahiz eta zerbitzu horren proposamena kontuan hartu beharko den, BOEek etxebizitza bakoitzeko 1,5 aparkaleku-plaza izateari dagokionez.

- **2008ko apirilaren 11n (sarrera-erregistroko zk.: 2.901), Iñigo Solaun Bustillo jaunak, bere izenean eta Gaztelueta ikastetxeko Aspaldiko Ikasleen Elkartearen izenean jarduten duenak,** alboko arloei eragin dieten



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

aldaketen edukia espedientearen planoetan kontuan hartu ez dela adierazi du.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta alegazioa aintzat hartzea proposatu du. Torresolo sektoreari dagokionez, Leioako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa zehatzaren dokumentu hau behin-behinean onetsi ondoren, behin betiko onesteko testu bategina egingo da. Horrek dokumentazio grafikoa bildu eta aldatuko du, Hirigintza Sailaren maiatzaren 5eko 353/2003 Foru Agindura moldatzeko.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du.

- **2008ko apirilaren 11n (sarrera-erregistroko zk.: 2.902), Esperanza Ruiz de Velasco Francisco andreak eta Juan Carlos Saldaña Ruiz de Velasco jaunak** azalerei eta titulartasunari buruzko hainbat zehaztapen proposatu dituzte eta horiek justifikatzen dituen dokumentazioa eman dute. Bestalde, Lurzoru Urbanizaezin Babestu gisa sailkatutako lurra sektore horretara gehitzeko eskatu dute.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta bertan adierazi du jabetzari buruzko kontuak kudeaketa fasean, eta zehatzago, Berrito Zatitzeko Proiektuan gauzatuko direla. Nolanahi ere, dokumentazioa aztertu ondoren, titulartasunen araubideari dagokionez, alegazioa aintzat hartzea proposatu da, prozeduraren barnean egokia den unean jabetzak eta azalera egiaztatze egingo den izapidearen eta finkaren jabaritutasunaren inguruan hirugarrenak agertzearen kalterik gabe. Lurzoru Urbanizaezina Lurzoru Urbanizagarri Sektorizatu gisa sailkatzeari dagokionez, baztertu egin da.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du.

- **2008ko apirilaren 11n (sarrera-erregistroko zk.: 2.903), Ignacio Saldaña Zarraga jaunak gaur egun** Lurzoru Urbanizaezin Babestu gisa sailkatuta dagoen bere finka bat sektorearen eremura gehitzeko eskatu du.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta aurkako irizpidea adierazi du, espedienteak Plan Orokorrean jada aurreikusita dagoen Lurzoru Urbanizagarria garatu besterik egiten ez duelako.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du.

- **2008ko apirilaren 14an (sarrera-erregistroko zk.: 2.936), AENAk** txostena bidali du, zortasun aeronautikoei buruzko araudia betetzei buruz.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta alegazioa aintzat hartu du. Gauzak horrela, adierazitako zehaztapenak behin-behinean onesteko dokumentuan agertu beharko dira.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak beste txosten bat egin du eta bertan egoitzako erabilera eta ekipamendu pribatueterako eraikigarritasunak behar bezala



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

zehaztu ditu. Era berean, Plan Orokorraren aurreikuspenen arabera, etxebizitzek etxebizitza bakoitzeko bi aparkaleku-plaza edo gehiago izan behar dutela azaldu du. Parametro hori egokia omen da ELetarako, baina beharbada gehiegizkoa izango da BOEetarako. Horregatik, bidezkotzat jo da BOEetarako aparkaleku-plazak etxebizitza bakoitzeko 1,5 izatea ezartzea.

Bestalde, Kirol Arloak Pinosoloko etorkizuneko kiroldegia programatik eta La Ola izeneko instalazio osagarritik ondorioztatutako lurzoru beharrianak kalkulatu ditu, zabalduko den kale berriaren hegoaldeko gunea berriro doitzea dakartenak.

PPko ordezkariak adierazi du espediente hori onestearen aurka dagoela, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Xedapen Iragankorren epeei buruzko aurreikuspenak bakarrik bete nahi direlako, aipatutako aginduan bildutako etxebizitza babesturako egoitzazko erabilerako hirigintza-erreserbako ehuneko berriak ez aplikatzeko ondoretarako. Kontraesankorra da bere garaian Legea Eusko Legebiltzarrean onetsi zuten alderdi politikoak orain legearen xedapen iragankorren bidez hori betetzea saihesteko neurriak hartzen aritzea. Etxebizitza babestuko erreserba berriek hirigintza-eragiketak bideraezin egiten badituzte, zirkunstantzia hori aurretik pentsatu behar zen, Legea onetsi zenean, hain zuzen ere.

Batzordeburua den EAJ/PNVko ordezkariak uste du EAEko lurraldean oro har aplikatu beharreko legea dela, baina eztabaidagaia Leioa udal mugartean aplikatzea dela; izan ere, Leioak ezaugarri orografiko zehatzak ditu, eraikigarritasuna handitzeko neurriak, adibidez birdentsifikazioa, erabiltzea gomendatzen ez dutenak, nahiz eta beste leku batzuetan egokiak izan daitezkeen. Uste du ahalegina egin behar dela eta espedientea sustatu behar dela, udal ordezkariak daukaten alderdi politiko guztiek eskatu dituzten kirol instalazioak eraiki ahal izateko behar diren lurak emanez, auzokoei eskain dakizkiekeen BOEen kopuru handiagatik (232).

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak Udalaren osoko bilkurak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Aurkeztutako alegazioak erredakzio taldeak eta Udaleko Bulego Teknikoak esan duten moduan ebaztea.
- Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa, Torresoloko eremuari (44. sektorea) buruzkoa, behin-behinean onestea.
- Erredakzio taldeak onetsitako aldaketak eta iradokizunak biltzen dituen testu bategina ematea, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaltzeko ondoretarako, Udalak behin betiko onesteko den derrigorrezko txostena egin dezan (2/2006 Legearen 90.6 eta 91.2 art.).

Irizpen hau PPko ordezkariaren aurkako botoarekin hartu da, bertan azaldutako arrazoiengatik.

EZTABAIDA:

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Hori eta eguneko aztergaien zerrendako hurrengo bi puntuak Udalaren osoko bilkuraren aurreko bileran aztertutakoaren jarraipena direla esan du.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak euskaraz esandakoaren itzulpenaren laburpena:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Hitzaldietan puntu hori eta hurrengo biak batera aztertzea proposatu du, argudio haria bera baita.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Bere taldeak espediente horien hasierako onespena aztertu zenean erakutsi zuen jarrerari eusten jarraituko diola adierazi du, Eusko Legebiltzarrak onetsitako Lurzoruari buruzko Legea betetzeko moduan. Izan ere, lege horrek etxebizitza babestuen ehuneko handiagoa - % 75ez hitz egin zen- ezartzen du eta, parametro horren aplikazioari esker, gaur egun aurreikusita dauden etxebizitza babestuak baino 100 gehiago eraikiko lirateke.

Amaitzeko, bere taldea tranbia instalatzea erraztearen eta Pinosoloko kiroldegirako lurra izatearen alde dagoela esan du, baina, aldi berean, uste du Lege berria aplikatu behar dela, 100 etxebizitza gehiago eskuratzeko.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak esandakoaren laburpena:

Aurreko hitzaldiaren tonua eskertu du eta ondokoa adierazten duen Legearen artikulua aplikatzen ari dela adierazi du jarraian: Lege berriaren aurreko plangintzatik ondorioztatutako etxebizitza ofizialeko parametroek bi urteko aldia daukate garatzeko eta, arau berriaren arabera, jarduketak Planaren berrikuspena dakar.

Aurreko Legeak BOE eta etxebizitza libreen ehunekoez hitz egiten zuela eta berriak eraikitako metroen arabera ehunekoak ezartzen zituela adierazi du. Horrela, etxebizitza babestuen bi mota bereizten du: % 55 BOEtarako da eta gainerakoa etxebizitza tasatuatarako; etxebizitza tasatua BOE baino garestiagoa da eta Leioan oraindik ez dago araututa.

Lege berria aplikatzeak gaur egun burutzen ari den plangintza aldaketa baino sakonagoak direnak behar ditu eta, nolana ere, poztu egin da, PPko bozeramaileari plangintzak bi arlo horietan dakartzan ekarpenak gustatu zaizkiolako, talde politiko horrek arloetan egitea nahi duenari dagokionez: lekua kiroldegirako, Pinosoloko berdegunearen hedapena, Txorierririkiko bide lotura berria, 232 BOE, aparkaleku gehiago eta abar.

Amaitzeko, Unibertsitatearekiko eta errotaren onibarrarekiko hiri loturari eutsiko zaiola adierazi du eta, etxebizitza babestua ezartzeko, aurreko legearen eta lege berriaren irizpideen artean dagoen aldea nabarmendu du.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Gunean etxebizitza gutxiago eraikiko direla esan du berriro eta, Lege berriari lotzeko plana berrikusi behar bada, berrikusi egin beharko dela esan du. Ez litzateke izapiderik presatu beharko, lege berria betetzeari uzteko eta aurrekoa aplikatzen jarraitzeko.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak esandakoaren laburpena:

Planaren berrikuspenak –oraindik osorik garatu ez dena- Leioako garapenean bi urteko etena eragin, eta kiroldegi eta parkeetarako lurra lortzea eta errota eskuratzeko eragotz dezakeela esan du. Amaitzeko, PPko taldea Eusko Legebiltzarrean bere aurkako botoa jaso zuen legea aplikatzeko hain temati agertzea paradoxikoa dela ondorioztatu du. Dena den, ez du ulertzen zein kalkulu egin duen PPK, 100 etxebizitza gutxiago egongo direla ondorioztatzeko.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Legeak aplikatzen hasteko “denbora” zehatz bat dagoela adierazi du; horregatik, beti xedapen indargabetzaileak, iragankorrak, gehigarriak eta azken xedapenak daude, horrela, araua onetsi baino lehen hasitako jarduketak horiek gaitu zituen aurreko arauaren arabera garatzeko moduan.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Hirigintza legedi berriak ez ditu alde batera uzten aurretik onetsitako plan orokorrak eta arau subsidiarioak eta, horiek aplikatzeko asmoa badago, aplikatzeko aukera ematen du, partikularrek une bakoitzean indarrean dauden arauen edo plangintzaren arabera eskuratu dituzten eskubideak errespetatuta. Hori bat dator segurtasun juridikoaren printzipioarekin.

Amaitzeko, Lamiakoko Begiratokiaren eremuko (Txorierrri) arau subsidiarioen garapena aipatu du: jabeek Planaren aurreikuspenak epearen barnean bete ez zituztenez, akordioa egin behar izan zen horiekin, desjabetze-sistemaren bidez esku hartzea proposatu zela. Hori ikusita, jabeek lankidetzeta sistema aplikatzea proposatu zuten eta azkenean 76 BOE eraiki ziren.

Eztabaidaren ondoren gaia bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamazortzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EEko sei zinegotzienak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak; aurkako hiru boto ere egon dira, PP taldeko hiru zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren** aldeko botoaz **erabaki du**, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Torresolo sektoreari buruzko aldaketa behin-behinean **oneste**a, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

7.- LEIOANDI SEKTOREARI DAGOKIONEZ HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA. AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK AZTERTZEA: Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko apirilaren 22ko 80. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udalaren osoko bilkurak 2008ko otsailaren 28an hartutako 8. erabakiaren bidez, hasieran onetsi zen Leioako Plan Orokorraren aldaketa zehatza, Leioandiko eremuari (38. sektorea) buruzkoa. Aldaketaren helburuak Leioandiko muinoa ekipamendu erabilerari lotzea eta Elexalde erreko ibarreko espazio libreak mugatzea dira. 627 etxebizitza (407 BOE eta 220 EL) eraikitzea eta udaletxearen eta Sarrienako biribilgunearen artean etorbidea -tranbia handik joango dela Leioako geltokitik UPV/EHUr- zabaltzea aurreikusi dituen egoitza-erabilerako sektorea da.

ildo horri jarraiki, 2008ko otsailaren 27an hartutako 285. dekretuaren bidez, hasieran onetsi zen espediente horren aurreikuspenak garatzen dituen Plan Partziala. Arauen mailari buruzko abiaburuaren arabera, antolamendu xehatu horren behin betiko onespina Plangintza Orokorraren aldaketaren behin betiko onespenean baldintzatzen du.

Bi espedienteetarako alegazioak aurkezteko ondoretarako ezarritako epeetan, hainbat alegazio aurkeztu dira. Elkarri estu lotuta daudela uste izanda, komenigarritzat jo da bi agirien alegazio guztiak batera aztertzea:

- **2008ko martxoaren 26an (sarrera-erregistroko zk.: 2.383), Lino Astobieta Urkiaga jaunak, Maria Carmen eta Jaione Urkiaga Basarte andreen izenean, Artazagane kaleko 46. zenbakian dagoen eraikina eraistearekin**



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

ados ez dagoela adierazi du. Aipatutako ondasunari esleitutako azalerari buruzko hainbat akats daudela esan du eta kalte-ordainen, ostatu berria ematearen eta abarren kostu xehatua jakin nahi du.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta jabe bakoitzari dagozkion azalerak derrigorrezko kudeaketa agirietan, Berrito Zatitzeko Proiektuan, hain zuzen ere, zehaztuko direla adierazi du. Fase horretan ere kalte-ordainak ezarri beharko dira. Nolanahi ere, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorraren arabera, ostatu berria emateko eskubidea bakarrik bermatzen da hirigintza-burutzapenetan etxebizitzan legeko okupatzaileak daudenean -etxebizitza horiek beren ohiko bizilekuak direla-eta, berriro zatitzeko proiektuaren barnean, beren ondasun eta eskubideen ekarpenen truke, egoitzazko erabilera libreko 90 m²-tik gorako hirigintza-erakinak edo Babes Ofizialeko Etxebizitzan Legedian gehieneko azalera gisa ezar litezkeen metro karratuak esleitzen ez zaizkienean.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Zerbitzu Teknikoek erredakzio taldeak egindako txostena berresten duen txostena egin dute eta proposatu den hirigintza-antolamenduak eraikina eraistea dakarrela adierazi dute.

- **2008ko martxoaren 27an (sarrera-erregistroko zk.: 2.455), Constantino Guerra Galende jaunak** 55. lur-zatia beste pertsona bati esleituta akats bat egon dela adierazi du. Horrez gain, azalera handiagoa daukala esan du.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta bertan adierazi du jabetzari eta azalerari buruzko kontuak Berrito Zatitzeko Proiektuan konponduko direla behin betiko. Nolanahi ere, egiaztatu ondoren, egokitzat jo da alegatzailea 55. finkaren jabea dela dioen alegazioa aintzat hartzea, berriro zatitzeko fasean berriro berrikustearen kalterik gabe.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Zerbitzu Teknikoek erredakzio taldearen txostena berresten duen txostena egin dute.

- **2008ko martxoaren 28an (sarrera-erregistroko zk.: 2.470), Francisco Achalandabaso Zubiaur jaunak** 73. lur-zatiaren jabetzari buruz argitaratu denarekin eta 59., 60. eta 73. lur-zatien azalarekin ados ez dagoela adierazi du.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta bertan adierazi du Atxalandabaso Zubiaur jaunak arrazoitzat aipatutako kontuak neurri handiagoan dagozkiola kudeaketa eta berdinbanaketa faseari, hizpide dugun plangintza faseari baino. Hortaz, eremu baten egiturazko antolamendu xehatuko tresna bat daukagu aurrean eta horrek ez du zertan zehaztu jabariari eta azalerari buruzko kontuak, jabe bakoitzari baino ez dagozkionak. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 42. artikuluan ezarritako berriro zatitzeko araubidearen bidez, onurak eta kargak jabeen artean berdinbanatzeko prozesua ezarri behar da, prozedura fasea egokia dela alegazio horren edukirako. Hala ere, erredakzio taldeak alegazioan adierazitakoaren edukia kontuan hartu du, ondore egokiak izan ditzan. Hori dela eta, alegazioa aintzat ez hartzea proposatu da, alegazioan adierazitakoaren edukia kontuan hartzearen eta azalerari eta jabariari lotutako kontuak egiaztatu eta aztertzearen kalterik gabe.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du.

- **2008ko apirilaren 7an (sarrera-erregistroko zk.: 2.685 eta 2.686), José Luis Achalandabaso Zubiatur jaunak** azalera eta jabetza ezberdinak zuzentzea proposatu du.

Aurreko kasuan adierazitakoa dioen txostena egin da.

- **2008ko apirilaren 7an (sarrera-erregistroko zk.: 2.745), AUZOTIK erakundeak** azaldu du hirigintza-eraikigarritasuna handitu dela, 2/2006 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurrek onetsi den eta indarrean dagoen Jarduketa Urbanizatzaileko Programa ez daukaten bitartean, lurraren jabetzako hirigintza-edukiak ez duelako barne hartzen horretarako eskubidea. Horregatik, uste du Lege berriaren etxebizitza babesturako gutxieneko estandarrak eta 105. artikuluan adierazitako erreserbak aplikatu behar direla.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta bertan adierazi du alegatzaileak kontzeptu mota ezberdinak nahastu dituela: Lurzoruari buruzko Legearen 22. artikulua Lurzoru Urbanizagarriko eta Finkatu gabeko Hiri Lurzoruko jabetzaren legezko hirigintza-edukia ezartzen du. Horrenbestez, lurzoruaren kategoria horietan jabetza-eskubidearen edukia zein den zehaztu du, horren gaineko jabetza hirigintza arloko legeek ezarritako lege estatutuari lotuta baitago. Beste gauza bat da etxebizitza babesturako estandar berriak denboran aplikatzea, epe batzuk amaitzen direnean, plangintzari buruzko dokumentuetan egoitzazko erabilerako eraikigarritasuna eraginkortasunez handitzen denean, hain zuzen ere, bakarrik burutuko direnak. Plangintzaren aldaketa horrek Plan Orokorrean jada aurreikusitako lurzoru urbanizagarria eraikigarritasun-koefiziente berdinei helduta sektorizatu besterik ez du egiten.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du.

- **2008ko apirilaren 8an (sarrera-erregistroko zk.: 2.757), Argiñe Zubiaguirre Pérez andreak, José Luis Zubiaguirre Iturregui jaunaren izenean,** hainbat finkatako azalera-hedadurei eta jabetzei buruzko zenbait xehetasun eman ditu eta horri buruzko dokumentazioa eman du.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta bertan adierazi du mota horretako oharra Berrito Zaitzeko Proiektuan konponduko direla. Nolanahi ere, dokumentazioa aztertu ondoren, alegazioa aintzat hartu da, Zubiaguirre Iturregui jauna honakoaren zatitu gabeko bosten baten jabea izateari dagokionez:

- 13.500 erregistro-finka, Leioandi sektoreko lur-zatien 38.aren zati dena.
- 13.503 eta 13.497 erregistro-finkak, Leioandi sektoreko lur-zatien 31.aren zati direnak.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Hori guztia sektorearen hirigintza-kudeaketaren fasean titulartasunak egiaztatzeko egingo den izapidearen eta finkaren jabari-titulartasunaren inguruan hirugarrenak agertzearen kalterik gabe egingo da.

Beste aldetik, Zubiaguirre jaunaren alegazioa kontuan ez hartzeari buruzko txostena egin da, sektoreko 31. eta 38. lur-zatien partaidetzako jabari-portzentajeei eta, aintzatesteko aurkeztu duen titulartasunaren ondorioz, lur-zati horien gainean erreklamatu duen azalerari dagokienez. 31. eta 38. lur-zatiei dagokienez, esleitutako azalera osoa aldaketa zehatzaren agirian egiaztatuko da, sektorearen hirigintza-kudeaketaren fasean haien jabari eta azalera zehatzak zehaztearen kalterik gabe.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du.

- **2008ko apirilaren 9an eta 14an (sarrera-erregistroko zk.: 2.810 eta 2.941), José Antonio eta Begoña Arrizabalaga Garay jaun-andreek,** Plangintzaren aldaketa hau egiteko bete behar diren administrazio izapideekin ados ez daudela adierazi dute. Era berean, Elexalde kaleko 10. zenbakian dagoen eraikina eraistearen aurka daudela esan dute eta beraiena den eta lurzoru urbanizagarri babestu gisa sailkatuta dagoen azalera bat eragiketaren eremuan sartzea nahi dute. Amaieran, honako hau adierazi da: *“..... amaitzeko, hirigintza ahalmena erabiliz, eragindako interes publikoak eta pribatuak hobeto bateratzen dituzten formulak bilatzea proposatu da.....”*

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta bertan adierazi du aldaketa horrek Plan Orokorrean lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurra horrela sektorizatu baino ez duela egiten, haren eraikigarritasuna aldatu gabe. Horren ondorioz, ez gaude berriuspen baten aurrean. Leioako Udalak ahalegina egin du eragiketari publizitatea emateko, auzokoei postontzietan banatzen zaien udal aldizkariaren portadan sartuz. Araudiak Plangintza eta Plan Partziala aldatzeko izapideak aldi berean egiteko aukera ezartzen du, 2/2006 Legearen 58.3 artikuluan adierazitakoaren arabera. Aurretik urbanizaezin gisa sailkatu diren azalera sartzeko aukera ez da aintzat hartu. Hala eta guztiz ere, bide berriak eraikitzeko edo hiri diseinua aldatzeko Elexalde kaleko 10. zenbakian dagoen eraikina eraitsi behar ez dela kontuan hartuta, horri eustearen aldeko txostena egin da, bere azalera eta babestu beharreko alboko gunek bat hirigintza-eragiketa horretatik bereizita.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du.

- **2008ko apirilaren 14an (sarrera-erregistroko zk.: 2.938), Lucia eta Maria Teresa Aresti Astobieta andreek** interesdun gisa espedientean agertu nahi dutela adierazi dute, eragindako bi lur-zatiren jabeak direlako. Ondore horretarako, beraiek ordezkaturako dituen abokatua hautatu dute.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta alegazioa aintzat hartu du.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- **2008ko apirilaren 15ean (sarrera-erregistroko zk.: 2.964), AENak** txostena bidali du, zortasun aeronautikoei buruzko araudia betetzeari buruz.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta alegazioa aintzat hartu du. Gauzak horrela, zehaztapenak behin-behinean onesteko dokumentuan agertu beharko dira.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du.

- **2008ko apirilaren 18an (sarrera-erregistroko zk.: 3.081), Luis Saloña Sagrado jaunak** bere lur-zatiaren neurketarekin ados ez dagoela adierazi du. Halaber, kalte-ordainei buruzko irizpide zehatzagoak eskatu ditu eta urbanizazioari buruzko aurrekontu ekonomikoarekin ados ez dagoela esan du.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak txostena egin du eta bertan adierazi du neurketa zehatzak eta kalte-ordainak ondoko fase batean, eta zehatzago, Berrito Zatitzeko Proiektuan gauzatuko direla. Urbanizazio-obra ingeniaritza espezializatu batek egindako aurreproiektu bat oinarri hartuta ebaluatu dira.

Era berean, 2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak beste txosten bat egin du eta bertan adierazi du komenigarria dela EL bakoitzeko bi aparkaleku-plaza izatea, baina parametro hori BOEn aplikatzea gehiegizkoa izan daitekeela. Horren ondorioz, azken higiezin produktu horri 1,5 aparkaleku etxebizitza bakoitzeko ratioa aplikatzea proposatu da.

PPko ordezkariak adierazi du espediente hori onestearen aurka dagoela, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Xedapen Iragankorren epeei buruzko aurreikuspenak bakarrik bete nahi direlako, aipatutako aginduan bildutako etxebizitza babesturako egoitzazko erabilerako hirigintza-erreserbako ehuneko berriak ez aplikatzeko ondoretarako. Kontraesankorra da bere garaian Legea Eusko Legebiltzarrean onetsi zuten alderdi politikoak orain legearen xedapen iragankorren bidez hori betetzea saihesteko neurriak hartzen aritzea. Etxebizitza babestuko erreserba berriek hirigintza-eragiketak bideraezin egiten badituzte, zirkunstantzia hori aurretik pentsatu behar zen, Legea onetsi zenean, hain zuzen ere.

Batzordeburua den EAJ/PNVko ordezkariak uste du EAeko lurraldean oro har aplikatu beharreko legea dela, baina eztabaidagaia Leioa udal mugartean aplikatzea dela; izan ere, Leioak ezaugarri orografiko zehatzak ditu, eraikigarritasuna handitzeko neurriak, adibidez birdentsifikazioa, erabiltzea gomendatzen ez dutenak, nahiz eta beste leku batzuetan egokiak izan daitezkeen. Uste du ahalegina egin behar dela eta espedientea sustatu behar dela, Leioako geltokia eta UPV/EHUko Campusa lotzen dituen tranbiaren instalazioa sustatu ahal izateko eta, udalak nahi duen ekipamendurako, Leioandiko muinoa erabilgarri egoteko behar diren lurrak emanaz, auzokoei eskain dakizkiekeen BOEen kopuru handiagatik (407).

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak Udalaren osoko bilkurak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Aurkeztutako alegazioak erredakzio taldeak eta Udaleko Bulego Teknikoak esan duten moduan ebaztea.
- Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa, Leioandiko eremuari (38. sektorea) buruzkoa, behin-behinean onestea.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- Erredakzio taldeak onetsitako aldaketak eta iradokizunak biltzen dituen testu bategina ematea, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaltzeko ondoretarako, Udalak behin betiko onesteko den derrigorrezko txostena egin dezan (2/2006 Legearen 90.6 eta 91.2 art.).

Irizpen hau PPko ordezkariaren aurkako botoarekin hartu da, bertan azaldutako arrazoiengatik.

EZTABAIDA:

7. puntuan egindako eztabaidak puntu honi buruzkoa ere hartu du.

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamazortzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EEko sei zinegotzianak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzianak; aurkako hiru boto ere egon dira, PP taldeko hiru zinegotzianak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren** aldeko botoaz **erabaki du**, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa. Leioandi sektoreari buruzkoa, behin-behinean onestea, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

8.- LEIOANDI EREMUAREN (HAPOKO 38. SEKTOREA) PLAN PARTZIALA BEHIN BETIKO ONESTEA, OINARRI DUEN PLANGINTZAREN ALDAKETA BEHIN BETIKO ONESTEAREN BALDINTZAPEAN: Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko apirilaren 22ko 81. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udalaren osoko bilkurak 2008ko otsailaren 28an hartutako 8. erabakiaren bidez, hasieran onetsi zen Leioako Plan Orokorraren aldaketa zehatza, Leioandiko eremuari (38. sektorea) buruzkoa. Aldaketaren helburuak Leioandiko muinoa ekipamendu erabilerari lotzea eta Elexalde erreko ibarreko espazio libreak mugatzea dira. 627 etxebizitza (407 BOE eta 220 EL) eraikitzea eta udaletxearen eta Sarrienako biribilgunearen artean etorbidea -tranbia handik joango dela Leioako geltokitik UPV/EHUr- zabaltzea aurreikusi dituen egoitza-erabilerako sektorea da.

Ildo horri jarraiki, 2008ko otsailaren 27an hartutako 285. dekretuaren bidez, hasieran onetsi zen espediente horren aurreikuspenak garatzen dituen Plan Partziala. Arauen mailari buruzko abiaburuaren arabera, antolamendu xehatu horren behin betiko onespena Plangintza Orokorraren aldaketaren behin betiko onespenean baldintzatzen du.

Bi espedienteetarako alegazioak aurkezteko ondoretarako ezarritako epeetan, hainbat alegazio aurkeztu dira. Elkarri estu lotuta daudela uste izanda, komenigarritzat jo da bi agirien alegazio guztiak batera aztertzea:

- **2008ko martxoaren 26an (sarrera-erregistroko zk.: 2.383), Lino Astobieta Urkiaga jaunak, Maria Carmen eta Jaione Urkiaga Basarte andreen izenean,** Artazagane kaleko 46. zenbakian dagoen eraikina eraistearekin



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

ados ez dagoela adierazi du. Aipatutako ondasunari esleitutako azalerari buruzko hainbat akats daudela esan du eta kalte-ordainen, ostatu berria ematearen eta abarren kostu xehatua jakin nahi du.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta jabe bakoitzari dagozkion azalerak derrigorrezko kudeaketa agirietan, Berrito Zatitzeko Proiektuan, hain zuzen ere, zehaztuko direla adierazi du. Fase horretan ere kalte-ordainak ezarri beharko dira. Nolanahi ere, EAeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorraren arabera, ostatu berria emateko eskubidea bakarrik bermatzen da hirigintza-burutzapenetan etxebizitzan legeko okupatzaileak daudenean -etxebizitza horiek beren ohiko bizilekuak direla- eta berriro zatitzeko proiektuaren barnean, beren ondasun eta eskubideen ekarpenen truke, egoitzazko erabilera libreko 90 m²-tik gorako hirigintza-erakinak edo Babes Ofizialeko Etxebizitzan Legedian gehieneko azalera gisa ezar litezkeen metro karratuak esleitzen ez zaizkienean.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Zerbitzu Teknikoek erredakzio taldeak egindako txostena berresten duen txostena egin dute eta proposatu den hirigintza-antolamenduak eraikina eraistea dakarrela adierazi dute.

- **2008ko martxoaren 27an (sarrera-erregistroko zk.: 2.455), Constantino Guerra Galende jaunak**, 55. lur-zatia beste pertsona bati esleituta akats bat egon dela adierazi du. Horrez gain, azalera handiagoa daukala esan du.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta bertan adierazi du jabetzari eta azalerari buruzko kontuak Berrito Zatitzeko Proiektuan konponduko direla behin betiko. Nolanahi ere, egiaztatu ondoren, egokitzat jo da alegatzailea 55. finkaren jabea dela dioen alegazioa aintzat hartzea, berriro zatitzeko fasean berriro berrikustearen kalterik gabe.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Zerbitzu Teknikoek erredakzio taldearen txostena berresten duen txostena egin dute.

- **2008ko martxoaren 28an (sarrera-erregistroko zk.: 2.470), Francisco Achalandabaso Zubiaur jaunak** 73. lur-zatiaren jabetzari eta 59., 60. eta 73. lur-zatien azalerari buruz argitaratu denarekin ados ez dagoela adierazi du.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta bertan adierazi du Atxalandabaso Zubiaur jaunak arrazoitzat aipatutako kontuak neurri handiagoan dagozkiola kudeaketa eta berdinbanaketa faseari, hizpide dugun plangintza faseari baino. Hortaz, eremu baten egiturazko antolamendu xehatuko tresna bat daukagu aurrean eta horrek ez du zertan zehaztu jabariari eta azalerari buruzko kontuak, jabe bakoitzari baino ez dagozkionak. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 42. artikuluan ezarritako berriro zatitzeko araubidearen bidez, onurak eta kargak jabeen artean berdinbanatzeko prozesua ezarri behar da, prozedura fasea egokia dela alegazio horren edukirako. Hala ere, erredakzio taldeak alegazioan adierazitakoaren edukia kontuan hartu du, ondore egokiak izan ditzan. Hori dela eta, alegazioa aintzat ez hartzea proposatu da, alegazioan adierazitakoaren edukia kontuan hartzearen eta azalerari eta jabariari lotutako kontuak egiaztatu eta aztertzearen kalterik gabe.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du.

- **2008ko apirilaren 7an (sarrera-erregistroko zk.: 2.685 eta 2.686), José Luis Achalandabaso Zubiaur jaunak** azalera eta jabetza ezberdinak zuzentzea proposatu du.

Aurreko kasuan adierazitakoa dioen txostena egin da.

- **2008ko apirilaren 7an (sarrera-erregistroko zk.: 2.745), AUZOTIK erakundeak** azaldu du hirigintza-eraikigarritasuna handitu dela, 2/2006 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurrek onetsi den eta indarrean dagoen Jarduketa Urbanizatzaileko Programa ez daukaten bitartean, lurraren jabetzako hirigintza-edukiak ez duelako barne hartzen horretarako eskubidea. Horregatik, uste du Lege berriaren etxebizitza babesturako gutxieneko estandarrak eta 105. artikuluan adierazitako erresebak aplikatu behar direla.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta bertan adierazi du alegatzaileak kontzeptu mota ezberdinak nahastu dituela: Lurzoruari buruzko Legearen 22. artikulua Lurzoru Urbanizagarriko eta Finkatu gabeko Hiri Lurzoruko jabetzako legezko hirigintza-edukia ezartzen du. Horrenbestez, lurzoruaren kategoria horietan jabetza-eskubidearen edukia zein den zehaztu du, horren gaineko jabetza hirigintza arloko legeek zehaztutako lege estatutuari lotuta baitago. Beste gauza bat da etxebizitza babesturako estandar berriak denboran aplikatzea, epe batzuk amaitzen direnean, plangintzari buruzko dokumentuetan egoitzazko erabilerako eraikigarritasuna eraginkortasunez handitzen denean bakarrik burutuko direnak. Plangintzaren aldaketa horrek Plan Orokorrean jada ezarritako lurzoru urbanizagarria eraikigarritasun-koefiziente berdinei helduta sektoreka banatu besterik ez du egiten.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du.

- **2008ko apirilaren 8an (sarrera-erregistroko zk.: 2.757), Argiñe Zubiaguirre Pérez andreak, José Luis Zubiaguirre Iturregui jaunaren izenean,** hainbat finkatako azalera-hedadurei eta jabetzei buruzko zenbait xehetasun eman ditu eta horri buruzko dokumentazioa eman du.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta bertan adierazi du mota horretako oharrak Berriro Zatitzeko Proiektuan konponduko direla. Nolanahi ere, dokumentazioa aztertu ondoren, alegazioa aintzat hartu da, Zubiaguirre Iturregui jauna honakoaren zatitu gabeko bosten baten jabea izateari dagokionez:

- 13.500 erregistro-finka, Leioandi sektoreko lur-zatien 38.aren zati dena.
- 13.503 eta 13.497 erregistro-finkak, Leioandi sektoreko lur-zatien 31.aren zati direnak.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Hori guztia sektorearen hirigintza-kudeaketaren fasean titulartasunak egiaztatzeko egingo den izapidearen eta finkaren jabari-titulartasunaren inguruan hirugarrenak agertzearen kalterik gabe egingo da.

Beste aldetik, Zubiaguirre jaunaren alegazioa kontuan ez hartzeari buruzko txostena egin da, sektoreko 31. eta 38. lur-zatien partaidetzako jabari-portzentajeei eta, aintzatesteko aurkeztu duen titulartasunaren ondorioz, lur-zati horien gainean erreklamatu duen azalerari dagokienez. 31. eta 38. lur-zatiei dagokienez, esleitutako azalera osoa aldaketa zehatzaren agirian egiaztatuko da, sektorearen hirigintza-kudeaketaren fasean haien jabari eta azalera zehatzak zehaztearen kalterik gabe.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du.

- **2008ko apirilaren 9an eta 14an (sarrera-erregistroko zk.: 2.810 eta 2.941), José Antonio eta Begoña Arrizabalaga Garay jaun-andreek,** Plangintzaren aldaketa hau egiteko bete behar diren administrazio izapideekin ados ez daudela adierazi dute. Era berean, Elexalde kaleko 10. zenbakian dagoen eraikina eraistearen aurka daudela esan dute eta beraiena den eta lurzoru urbanizagarri babestu gisa sailkatuta dagoen azalera bat eragiketaren eremuan sartzea nahi dute. Amaieran, honako hau adierazi da: *“..... amaitzeko, hirigintza ahalmena erabiliz, eragindako interes publikoak eta pribatuak hobeto bateratzen dituzten formulak bilatzea proposatu da.....”*

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta bertan adierazi du aldaketa horrek Plan Orokorrean lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurra horrela sektorizatu baino ez duela egiten, haren eraikigarritasuna aldatu gabe. Horren ondorioz, ez gaude berriuspen baten aurrean. Leioako Udalak ahalegina egin du eragiketari publizitatea emateko, auzokoei postontzietan banatzen zaien udal aldizkariaren portadan sartuz. Araudiak Plangintza eta Plan Partziala aldatzeko izapideak aldi berean egiteko aukera ezartzen du, 2/2006 Legearen 58.3 artikuluan adierazitakoaren arabera. Aurretik urbanizaezin gisa sailkatu diren azalera sartzeko aukera ez da aintzat hartu. Hala eta guztiz ere, bide berriak eraikitzeko edo hiri diseinua aldatzeko Elexalde kaleko 10. zenbakian dagoen eraikina eraitsi behar ez dela kontuan hartuta, horri eustearen aldeko txostena egin da, bere azalera eta babestu beharreko alboko gunek bat hirigintza-eragiketa horretatik bereizita.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du.

- **2008ko apirilaren 14an (sarrera-erregistroko zk.: 2.938), Lucia eta Maria Teresa Aresti Astobieta andreek** interesdun gisa espedientean agertu nahi dutela adierazi dute, eragindako bi lur-zatiren jabeak direlako. Ondore horretarako, beraiek ordezkaturako dituen abokatua hautatu dute.

2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta alegazioa aintzat hartu du.

2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- **2008ko apirilaren 15ean (sarrera-erregistroko zk.: 2.964), AENak** txostena bidali du, zortasun aeronautikoei buruzko araudia betetzeari buruz.
2008ko apirilaren 21ean erredakzio taldeak txostena egin du eta alegazioa aintzat hartu du. Gauzak horrela, adierazitako zehaztapenak behin-behinean onesteko dokumentuan agertu beharko dira.
2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak erredakzio taldearen irizpidea berresten duen txostena egin du.
- **2008ko apirilaren 18an (sarrera-erregistroko zk.: 3.081), Luis Saloña Sagrado jaunak** bere lur-zatiaren neurketarekin ados ez dagoela adierazi du. Halaber, kalte-ordainei buruzko irizpide zehatzagoak eskatu ditu eta urbanizazioari buruzko aurrekontu ekonomikoarekin ados ez dagoela esan du.
2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak txostena egin du eta bertan adierazi du neurketa zehatzak eta kalte-ordainak ondoko fase batean, eta zehatzago, Berrito Zaititzeko Proiektuan gauzatuko direla. Urbanizazio-obra ingeniaritza espezializatu batek egindako aurreproiektu bat oinarri hartuta ebaluatu dira.

Era berean, 2008ko apirilaren 21ean Udaleko Bulego Teknikoak beste txosten bat egin du eta bertan adierazi du komenigarria dela EL bakoitzeko bi aparkaleku-plaza izatea, baina parametro hori BOEn aplikatzea gehiegizkoa izan daitekeela. Horren ondorioz, azken higiezin produktu horri 1,5 aparkaleku etxebizitza bakoitzeko ratioa aplikatzea proposatu da.

PPko ordezkariak adierazi du espediente hori onestearen aurka dagoela, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Xedapen Iragankorren epeei buruzko aurreikuspenak bakarrik bete nahi direlako, aipatutako aginduan bildutako etxebizitza babesturako egoitzazko erabilerako hirigintza-erreserbako ehuneko berriak ez aplikatzeko ondoretarako. Kontraesankorra da bere garaian Legea Eusko Legebiltzarrean onetsi zuten alderdi politikoak orain legearen xedapen iragankorren bidez hori betetzea saihesteko neurriak hartzen aritzea. Etxebizitza babestuko erreserba berriek hirigintza-eragiketak bideraezinak egiten badituzte, zirkunstantzia hori pentsatu behar zen, Legea onetsi zenean.

Batzordeburua den EAJ/PNVko ordezkariak uste du EAeko lurraldean oro har aplikatu beharreko legea dela, baina eztabaidagaia Leioa udal mugartean aplikatzea dela; izan ere, Leioak ezaugarri orografiko zehatzak ditu, eraikigarritasuna handitzeko neurriak, adibidez birdentsifikazioa, erabiltzea gomendatzen ez dutenak, nahiz eta beste leku batzuetan egokiak izan daitezkeen. Uste du ahalegina egin behar dela eta espedientea sustatu behar dela, Leioako geltokia eta UPV/EHUko Campusa lotzen dituen tranbiaren instalazioa sustatu ahal izateko eta, udalak nahi duen ekipamendurako, Leioandiko muinoa erabilgarri egoteko behar diren lurak emanez, auzokoei eskain dakizkiekeen BOEen kopuru handiagatik (407).

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak Udalaren osoko bilkurak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Aurkeztutako alegazioak erredakzio taldeak eta Udaleko Bulego Teknikoak esan duten moduan ebatzea.
- Plan Orokorraren Leioandiko (38. sektorea) aldaketaren aurreikuspenak zehatz-mehatz garatzen dituen Plan Partziala behin betiko onestea.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- Arauen mailari buruzko oinarrizko abiaburuaren arabera, onespén hau oinarri duen Plangintza aldatzeko espedientearen behin betiko onespénak baldintzatzen du, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 58.3 eta 96. artikuluetan xedatutakoaren arabera.
- Erredakzio taldeak onetsitako aldaketak eta iradokizunak biltzen dituen testu bategina ematea.

Irizpen hau PPko ordezkariaren aurkako botoarekin hartu da, bertan azaldutako arrazoiengatik.

EZTABAIDA:

7. puntuaren egindako eztabaidak puntu honi buruzkoa ere hartu du.

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamazortzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EEko sei zinegotzienak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak; aurkako hiru boto ere egon dira, PP taldeko hiru zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren** aldeko botoaz **erabaki du**, Leioandiko eremuko (HAPOko 38, sektorea) Plan Partziala behin betiko **oneste**a, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

9.- INDEPENDENTZIA KALEKO 70. ZENBAKIA DUEN HIGIEZINARI ERAGITEN DION XEHETASUN AZTERLANA BEHIN BETIKO ONESTEA: Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko apirilaren 22ko 82. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udalak, 2007-10-30eko 1.026. Dekretuaren bitartez, hasieran onetsi zuen Independentzia kaleko 70. zenbakiko higiezinaren xehetasun azterlana, Pablo García Astrain jaunak aurkeztu zuela.

Jendaurrean azaltzeko tramitea burutu bitartean, José Luis Aresti Leal jaunak (68. higiezina hartzen duen lur-zati mugakidearen titularrak), 70 eta 68. lur-zatiak bereizteko lerroaren trazadurarekin ados ez zegoela adierazi zuen.

Udalak Xehetasun Azterlanaren sustatzaileari helarazi zion alegazio hori, bien artean adosteko zein izango zen euren lur-zatiak bereizteko lerroaren trazadura. Pablo García Astrain jaunak, Izquierdo familiaren ordezkarietan ere jarduten zuela, idazkia eta dokumentazioa aurkeztu zituen 2008-03-27an (sarrera-erregistroko zk.: 2.461). Horien bitartez, aldatu egin zituen Xehetasun Azterlanaren aurreikuspenak, eta onartu egin zuen José Luis Aresti Leal jaunak egindako alegazioan proposatutako lerroaren nahitaezko atzeraemangunea.

Hori guztia ikusita, Xehetasun Azterlana behin betiko oneste a proposatu da, honako baldintza hauen arabera:

1. Eskatzaileak Independentzia kalea urbanizatuko du, zabalera osoan, finkaren mugen artean dagoen tartean. Horretarako, obretako lizentzia eskatzeko aurkeztuko den Oinarrizko Proiektuarekin batera, urbanizazio obra arrunten proiektua ere aurkeztuko da,



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Burutzapen Proiektuaren mailan. Udaleko Zerbitzu Teknikoek jakinaraziko dituzte kale honen urbanizazioan bete beharreko arauak, unitate gisa hartuko dela, galtzada eta espaloiak bereizi gabe.

2. Eraikin hori 28B arloan proiektatutako eraikinak baino lehen eraikiko balitz, eskatzaileak behin-behineko sarbidea gaitu beharko du Independentzia kaletik, eta bere pentzura eraiki beharko du behin betiko sarbidea, irekiko den kale berritik ibili ahal bezain laster.
3. Lizentzia ematean, aldi berean, lur-zerrenda bereizi eta laga egingo da, herri jabariari erantsiko zaiona, Independentzia kalearen aurrean.

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak iritzi du osoko bilkuraren erabaki egokiaren bidez honako erabakiak hartzea komeni dela:

- Behin betiko onetsiko da Independentzia kaleko 70. zenbakiko higiezinaren xehetasun azterlana, Pablo García Astrain jaunak aurkeztu zuela. Bada, Udal Bulego Teknikoak ezarritako baldintzak bete beharko dira, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98. artikuluan adierazitakoa betez.
- Horri buruzko iragarkia argitaratuko da BAOn, Hirigintzako Plangintza Araudia onetsi zuen ekainaren 23ko 2.159/1978 Errege Dekretuaren 140.7. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

EZTABAIDA:

7. puntuan egindako eztabaidak puntu honi buruzkoa ere hartu du.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** behin betiko onetsiko dela Independentzia kaleko 70. zenbakia duen higiezinari eragiten dion xehetasun azterlana, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

10.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK 2008-04-01etik 2008-04-24ra. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientearen agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatuzeko kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

11.- PRESAZKO MOZIOAK:

PSE-EEren MOZIOA, LEIOAKO METROKO SARBIDEA ETA UNIBERTSITATEKO CAMPUSA TRANBIAREN BIDEZ LOTZEARI BURUZKOA:

Alfonso López Arevalillo jaunak, Leioako Udaleko PSE-EEko udal taldeko bozeramaileak, honako mozioa aurkeztu du Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 97.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, Osoko Bilkuraren bilera honetan eztabaidatzeko:

MOZIOA

1995ean metroa inauguratu zen Bilboaldean, gure herriak egituratzeko funtsezko garraibide bihurtuta. Orduetik hona hamahiru urte igaro dira eta sistema hori aurrera egiten eta Bilboaldeko Bizkaiko hainbat udalerriri estaldura ematen joan da.

Une hartan Leioak metroa eskuratu zuen, baina metroko sarbidea hirigunetik zein unibertsitateko campusetik oso urrun zegoela onartzen zuen.

Geroztik, tranbia aipatu dugu, Leioa egituratzeko funtsezko garraibidea delakoan, eta urte asko eman ditugu, oraindik errealitate hori gauzatu ez dela.

2005ean Eusko Trenak Leioa eta bere unibertsitateko campusa tranbiaren bidez lotzeko proiektua aurkeztu zuen, nahiz eta gaur egun proiektu hori oraindik burutu ez den.

Horregatik guztiagatik, Sozialisten Udal Taldeak honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuraren bilera honetan eztabaidatzeko:

Leioako Udalaren osoko bilkurak Eusko Jaurlaritzari eta Aldundiari eskatu nahi die Leioako metroko sarbidea eta unibertsitateko campusa tranbiaren bidez lotzea lehentasunez eta premiaz bultzatzeko.

EZTABAIDA:

PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak esandakoaren laburpena:

Mozioa aurkezteko arrazoia azaldu du: kontua modan dago komunikabideetan zein Eusko Legebiltzarrean eta hornidura hori garrantzitsua da udalerrirako.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Gaia aztertzearen alde dagoela adierazi du, mozioaren eduki zehatza baloratu gabe.

EB-Bko Daniel Herrera Torrecilla jaunak esandakoaren laburpena:

Uste du tranbiaren gaia estrategikoa dela Leioa garatzeko eta talde sozialistak Legebiltzarrean egin zuen eta prentsan agertu den eskaera batez hitz egin du.

Bere iritziz, Hirigintza Batzordea da informazioa eskatu beharko lukeena ekipamendu horren garapena areagotzeko eta gaia zehatz-mehatz ezagutzeko. Beraz, ez du uste Udalaren osoko bilkuraren bileran aztertzeko premia dagoenik.

PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak esandakoaren laburpena:

Gaur egun dakitena kontuan hartuta, Udalaren osoko bilkurari egokitu omen litzaioke erakundeetatik proiektu garrantzitsu horri buruzko informazio osoa lortzea, bere egoera prentsaren bidez jakin behar izan gabe. Gaia Hirigintza Batzordeari bidaltzea onartu du, alkateak ahalik eta informaziorik handiena emateko eskatu beharko lukeela uste badu ere.

EB-Bko Daniel Herrera Torrecilla jaunak esandakoaren laburpena:

Testuan informazioa eskatzeaz hitz egiten ez dela zehaztu du. Horregatik, berak Hirigintza Batzordeari aurkeztea eta horrek informazioa lortzea proposatu du.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EAJ-PNVko **Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena: Informazioa eskatzeari dagokionez, alkatea aipatu izanagatik parte hartzen duela esan du eta, horren harira, mozioan informazioa eskatzeaz hitz egiten ez dela adierazi du.

Eusko Jaurlaritzari proiektua neurri handiagoan bultzatzeko eskatu ezin zaiola esan du, eraikuntza-proiektuaren idazketa jada esleituta dagoelako –bi ingeniari-entresa burutzen ari dira-. Halaber, beste izapide batzuk bete dira, adibidez, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa. Dena den, proiektu horiek burutzapen luzea daukatela aipatu du.

Behin betiko proiektuaren burutzapena kontratatzeko prozedura urtearen amaieran onestea aurreikusi dela zehaztu du.

Foru organoen jarduketari dagokionez, aurrekontuak onesteko orduan, Sozialisten talde batzarkideak tranbiaren burutzapenari bultzada emateaz hitz egin zuela esan du, nahiz eta proiektua burutzeko partida ekonomikorik ez zegoen; dena den, hori ez dagokio Aldundiari. Horregatik, ez du euro bat ere eman gai horretarako.

Amaitzeko, gaia Hirigintza Batzordean aztertuko dela erabaki du, baina foru aurrekontuek azpiegitura horretarako inolako kopururik agertzen ez dutela nabarmendu du.

Alkate jaunak premiari buruzko bozketa egiteko agindu du.

PRESAZKO MOZIOAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Lehenengo eta behin, azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 91.4 artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, mozioaren premiari buruzko bozketa egin da.

Honakoa izan da bozketaren emaitza: **Aldeko bederatzi boto**, PSE-EEko sei zinegotzienak eta PPko hiru zinegotzienak; **kontrako hamaika boto**, EAJ-PNVko bederatzi zinegotzienak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotziena. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak gehiengoz erabaki du mozioaren premia **baztertzea**, berau eztabaidatu eta bozkatu behar ez dela erabakiz.

12.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

1. eskaera:

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Gai hori Udalaren osoko bilkurak aurreko urteko urrian egindako bileran aztertu zen, presazko mozio baten bidez, eta udaletxearen kanpoaldean zein barnealdean banderak jartzeari buruzkoa zen. Une hartan ez zen premia hauteman eta, “eskariaren” bidez, Alkatezari eskatu zitzaion udaletxean Espainiako bandera, Euskal Autonomia Erkidegokoa eta, hala denean, Europakoa edo Bizkaikoa eta Leioakoa (baldin badago) egon behar direla defendatzen duen banderei buruzko legea betetzeko.

Uste du neurri handiagoan dela sentimenduen errespetuari lotutako gaia, legeei lotutakoa baino; izan ere, Leioako herritarrek beren banderak haizearen eraginez mugitzen ikusteko eskubidea daukate, Espainiako gainerako herrietan eta, duela gutxi, Bizkaiko hiriburuan, Bilbon, alegia, egiten den bezala.

Hainbat hilabete igaro direla nabarmendu du eta lehen udaletxean zeuden mastak berrezartzea eta banderak jartzea proposatu du.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:
Egun horretan adierazi ziren argudioak errepikatzea bidezkoa ez dela esan du eta uste du eskariak “ageriko ekintza” eskatzen zuela eta, horren ondorioz, hori gertatzen denean, egiaztatu ahal izango duela.

2. eskaera:

PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak esandakoaren laburpena:

Hirigintza Batzordearen azken bileran talde sozialistak Lamiako eta Txopoeta auzoak leheneratzeko Plan Integralerako proposamen bat aurkeztu zuela esan du, uste baitzuen talde guztiek bultzatutako BBBPBk auzorako ezinbestekoak diren zenbait gai barne hartzen ez zituela. Gauzak horrela, ikastetxea zaintzeari dagokionez, utzikeria dagoela eta horrek itxura txarra ematen duela nabarmendu du, horra sartzeko dauden zailtasunak aipatuta. Hala ere, bere proposamenak Hirigintza Batzordean izan duen harrera ona eskertu du eta azkar jokatzeko eskatu du.

Bere ustez, Planean araztegia eta metroa sartu beharko lirateke eta aurrekontu zuzkidura egokia egin beharko litzateke. Horretarako, udal teknikarien laguntzaz, talde politiko guztiek Hirigintza Batzordean plan hori burutzea sustatzeko eskatu du.

3. eskaera:

PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak esandakoaren laburpena:

Apirilaren 2an, komunikabideen bidez, Paulino Luesma Gobernuaren Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariak udalerriko bi kaleri ETako bi kideren izenak jartzeko udal erabakia hilabeteko epean bidaltzeko egin zuen eskaeraren berri izan zuela esan du. Era berean, talde sozialistari Gobernuaren ordezkariaren idazkiaren kopia zein erantzunarena eta dokumentazio osagarriarena emateko eskatu du.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Talde sozialistaren lehenengo eskaerari dagokionez, uste du foro egokian, hau da, Hirigintzako Informazio Batzordean dagoela. Lamiako LHko zuzendariarekin duen harreman ona, Hirigintza Batzordeko burua zenean, udal arkitektoarekin batera, zuzendari horrekin izan zuen elkarrizketaren emaitza eta arkitektura-oztopoak kentzeko proposamenaren harrera bikaina aipatu ditu.

Talde sozialistaren proposamenetako batzuk udalari ez dagozkiola esan du, nahiz eta gai hori Hirigintza Batzordean ondo aztertu den nabarmendu.

Bigarren eskaerari dagokionez, Udalak erantzuteko betebeharrak formalik daukan edo erantzuna harreman onak izaten saiatzeko begirune adierazpenik izango litzatekeen aztertzen ari dela esan du. Horrez gain, gobernadore zibilen jarduketan aurrean beren autonomia babesteko udal erakundeek erakutsi ohi duten ardura gogoratu du.

Amaitzeko, bi kaleri demokraziaren aurreko ETako bi kideren izenak jarri izanari buruzko informazioa biltzeak harritu duela adierazi du. Izan ere, adibidez, horietako bat, Txikia zeritzona, 1973an hil zen eta Getxoko Udalak horren izena jarri zuen kale batean. Ondore horretarako, onetsitako erabakiaren aurkako errekurtsioa aurkeztu zen eta Auzitegi Nagusiek ebazpena eman zuten, udal erabakia ontzat ematen zuena. Gaia berretsi nahi zuela esan du.

PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak esandakoaren laburpena:

Gaiaren mamia aztertzen hasi nahi ez duela esan du, baina izapide formalen berri, hots, jasotako idazkiaren eta, hala denean, idazkiaren erantzunaren berri izan nahi zutela adierazi du.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Eta gaueko zortziak eta hamazortzi minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,